

Samsung

GT-C3590

Erabiltzailearen eskuliburua



Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua




Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori 2000ko azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

- Baliteke edukiaren zatiren bat desberdina izatea zure gailuan, lurralde edo zerbitzu-hornitzaile bakoitzaren arabera izan ohi baita.
- Hirugarren batzuen zerbitzuak noiznahi amaitu edo eten daitezke, eta Samsungek ez du eskaintzen edukia edo zerbitzua inolako denbora-epetan erabilgarri egoteko ordezkaritarik nahiz bermerik.
- Produktu honek doako softwarea edo kode irekikoa du. Lizentzien baldintza zehatzak, erantzukizun-etak, onarpenak eta oharrak Samsungen webgunean daude: opensource.samsung.com.
- CPUaren eta RAM memoriaren erabilera handia eskatzen duten edukiek (kalitate handiko edukia) gailuaren errendimendu orokorrari eragiten diote. Baliteke edukiari lotutako aplikazioek behar bezala ez funtzionatzea, gailuaren zehaztapenen eta erabiltzen den inguruaren arabera.



Gailuaren diseinua



1 Nabigazio-botoia
Menu-pantailan, menuaren aukera batetik bestera joateko.

2 Markaketa-botoia
Dei bat egiteko edo erantzuteko. Pantaila nagusian, azkena markatutako, galdutako edo jasotako deien zenbakiak berreskuratzeko.

3 Ahots-postontziaren zerbitzu-botoia
Pantaila nagusian, aukera ematen du ahots-postontziko mezuetara sartzeko (luze sakatuz gero)

4 Botoi alfanumerikoak

5 Funtzio-teklak
Pantailaren beheko aldean adierazitako ekintzak egiten dituzte.












6 Pizteko botoia
Gailua pizteko edo itzaltzeko (luze sakatuta). Dei bat amaitzeko. Menu-pantailan, aukera ematen du sarrera bat ezeztatzeko eta pantaila nagusira itzultzeko.

7 Berrespen-tekla
Pantaila nagusian, menu-pantailara sartzeko. Menu-pantailan, nabarmendutako menu-aukera hautatzeko edo sartutako informazioa berresteko. Baliteke teklak desberdin funtzionatzea lekuaren arabera.

8 Modu isilaren botoia
Pantaila nagusian, aukera ematen du modu isila aktibatzeko edo desaktibatzeko (luze sakatuz gero)


Gailuan, pantailaren goiko eskuineko aldean, adierazle hauek agertzen dira:

Ikonoa	Deskribapena
	Ez dago SIM txartelik
	Ez dago seinalerik
	Seinalearen intentsitatea
	Sarea bilatzen
	GPRS sarea konektatuta
	EDGE sarea konektatuta
	Bateriaren kargatze-maila
	Deia martxan
	Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta
	Testu-mezu berria (SMS)
	Multimedia-mezu berria (MMS)
	Mezu berria ahots-postontzian
	Push mezu berria


Ikonoa	Deskribapena
	Profil arrunta aktibatuta
	Profil isila aktibatuta
	Bluetootha aktibatuta
	Interneten nabigatzea
	Ordenagailu batera konektatuta
	Alarma aktibatuta
	Musika erreproduzitzen
	Musikaren erreprodukzioa etenda
	FM irratia piztuta
	Desplazamenduan (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo)
	Memoria-txartela jarrita
	Uneko ordua

SIM txartela eta bateria jartzea

1. Kendu atzeko estalkia, eta sartu SIM txartela.



Atzeko estalkia




SIM txartela




- Ez tolestu eta ez okertu gehiegi atzeko estalkia. Bestela, kaltetu egin liteke.
- Ez kendu atzeko estalkia mugikorra itxi aurretik. Bestela, kaltetu egin liteke.
- Ez kendu atzeko estalkia entzungailuak deskonektatu aurretik. Entzungailuen hargunea kaltetu egin liteke.


2. Sartu bateria, eta jarri berriro atzeko estalkia.



Bateria



Bateria kargatzea



Entxufera

1. Konektatu kargagailuaren mutur txikia gailuaren funtzio ugari hargunean, eta mutur handia entxufe batean.
2. Gailua osorik kargatu ondoren, deskonektatu kargagailutik. Deskonektatu kargagailua gailutik, eta, gero, entxufetik.



- Samsungek onartzen dituen kargagailuak, bateriak eta kableak soilik erabili. Onartu gabeko kargagailu edo kableek bateria leherrarazi edo gailua kaltetu lezakete.

- Ez kendu bateria aurrez kargagailua kendu gabe. Horrek gailua kaltetu dezake.



Kargagailuak ez du pizteko eta itzaltzeko etengailurik, eta, beraz, ez du elektrizitate-hornidura eteteko aukerarik; ondorioz, erabiltzaileak kendu behar du kargagailua saretik. Gainera, konektatuta dagoenean, entxufetik gertu egon behar du. Energia aurrezteko, deskonektatu kargagailua erabiltzen ari ez zarenean.

Memoria-txartela sartzea (aukerakoa)

Gehienez ere 32 GB-ko gaitasuna duten memoria-txartelak onartzen ditu gailuak. Baliteke memoria-txartel batzuk ez izatea bateragarriak gailuarekin, memoria-txartelaren fabrikatzailearen eta txartel-motaren arabera.



Sartu memoria-txartela irudian ageri den moduan.



- Memoria-txartela ordenagailu batean formateatuz gero, baliteke gailuarekin bateraezintasunak sortzea. Gailuan bakarrik formateatu memoria-txartela.
- Datuak sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelaren bizitza erabilgarria murriztu egiten da.
- Ez erabili tresna zorrotzik memoria-txartela gailutik ateratzeko.

Gailua piztea eta itzaltzea

Gailua piztea

Luze sakatu [] eta, gero, idatzi PINa eta sakatu <Ados>, beharrezkoa bada.

Gailua itzalita


Luze sakatu [].



Bateria erabat deskargatzen bada edo gailutik ateratzen bada, ordua eta eguna berrezarri egingo dira.

Menuetara sartzea

Zure gailuko menuetara edo aukeretara sartzeko,

Nabigazio-botoia	Menu batetik bestera mugitzeko
Berrespen-botoia	Menu bat edo aplikazio bat exekutatzeko.
<Menua>	Menu-pantaila irekitzeko.
<Atzera>	Aurreko pantailara itzultzeko.
	Menua edo aplikazioa ixteko eta pantaila nagusira itzultzeko.



- PIN2 eskatzen dizun menu batera sartzeko, SIM txartelak ekarritako PIN2 kodea sartu behar duzu. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
- Legez kanpoko softwareak erabiltzearen ondorioz pasahitzak edo informazio pribatua galduz gero edo beste kalte bat jasanez gero, Samsung ez da kalte horien arduradun egingo.

Testua idaztea

Testua idazteko modua aldatzea

Sakatu [#]	Maiuskula eta minuskula artean aldatzeko edo zenbaki-modura aldatzeko balio du.
Luze sakatu [#]	T9 eta ABC moduak txandakatzeko. Testua idazteko aukeran dauden moduak aldatu egin daitezke herrialdearen arabera.
Sakatu [*]	Sinboloen modura aldatzeko.
Luze sakatu [*]	Idazteko modu bat aukeratzeko edo sarrerako hizkuntza aldatzeko balio du.

T9 modua

1. Sakatu hitz oso bat idazteko botoi alfanumerikoak.
2. Nahi duzun hitza ondo idatzita bistaritzen denean, sakatu [o] zuriune bat sartzeko. Hitzagertzen ez bada, sakatu nabigazio-tekla gora edo behera, beste hitz bat hautatzeko.

ABC modua

Sakatu dagokion botoi alfanumerikoa, pantailan karakterea bistaratu arte.

Zenbaki-modua

Sakatu dagokion botoi alfanumerikoa zenbaki berri bat sartzeko.

Ikur-modua

Sakatu dagokion botoi alfanumerikoa ikur berri bat sartzeko.

Testua idazteko beste funtzio batzuk

Sakatu nabigazio-botoia.	Kurtsorea mugitzeko.
Sakatu <Borrar>	Karakterek banan-banan ezabatzeke.
Luze sakatu <Ezabatu>	Karakterek azkar ezabatzeke
Sakatu [0]	Zuriune bat sartzeko.
Sakatu [1]	Puntuazio-ikurrak idazteke.

Deiak egitea eta erantzutea

- Deitzeko, sartu telefono-zenbakia, eta sakatu [↵].
- Deia amaitzeko, sakatu [Ⓣ].
- Duela gutxi markatutako zenbaki bati deitzeko, sakatu [↵] zenbaki bat aukeratzeko, eta sakatu berriro [↵] markatzeko.
- Telefono-zerrenda erabiliz dei bat egiteko, sakatu <Menu> > **Kontak-tuak**, aukeratu kontaktu bat, eta sakatu [↵].
- Sarrerako dei bati erantzuteko, sakatu [↵].

Mezuak bidaltzea eta bistaratzea



<Menu> → Mezuak

Mezuak bidaltzea

1. Sakatu **Mezua sortu**.
2. Sakatu **Gehitu**, telefono-zerrenda irekitzeko.
3. Hautatu kontaktu bat, eta sakatu **Gehitu**.
Bestela, sartu zuzenean kontaktu-zenbaki bat.
4. Joan behera, eta idatzi bidaltzailearen izena. Ikus **“Testua idaztea”**.
5. Mezuari fitxategiak eransteko, sakatu <Aukerak> > **Media gehitu**, eta aukeratu fitxategiak.
6. Sakatu **Bidali**

Mezuak ikustea

Sakatu **Sarrera** postontzia, eta aukeratu irakurri nahi duzun mezua.

Kontaktuak kudeatzea

Gailuaren memorian, SIM txartelean edo memoria-txartelean, hainbat datu gorde ditzakezu: izenak, telefono-zenbakiak eta informazio pertsonala, esaterako.



<Menua> -> Kontaktuak



Erabiltzaileek memoria-kokapena alda dezakete. Horretarako, **<Menua> -> Kontaktuak -> <Aukerak> -> Ezarpenak -> Kontaktu berria** hemen gorde sakatu, eta memoria-kokapen bat hautatu behar dute.

Kontaktu berriak gehitzea

1. Sakatu Kontaktua sortu > memoriako kokaleku bat (beharrezkoa bada).
2. Idatzi kontaktu-informazioa, eta sakatu berrespen-botoia.

Kontaktuak editatzea

1. Aukeratu kontaktu bat, eta sakatu berrespen-botoia.
2. Editatu elementuak, eta sakatu berrespen-botoia, gordetzeko.

Kontaktuak ezabatzea

Hautatu kontaktu bat, eta sakatu **<Aukerak> ->Ezabatu.**

Kamera erabiltzea



<Menua> → Kamera

Argazkiak ateratzea

1. Biratu gailua ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
2. Fokuratu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin egin beharreko doikuntzak. Horretarako, sakatu <Aukerak>.
3. Sakatu berrespen-botoia argazki bat ateratzeko. Argazkiak automatikoki gordeko dira.

Bideoak grabatzea

1. Sakatu <Aukerak> → Bideokamera.
Bestela, sakatu **[1]**, kameratik bideokamerara aldatzeko.
2. Biratu gailua ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Fokuratu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin egin beharreko doikuntzak. Horretarako, sakatu <Aukerak>.
4. Sakatu berrespen-botoia grabatzen hasteko.
5. Sakatu <Gelditu>, grabazioa amaitzeko. Bideoak automatikoki gordetzen dira.

Argazkiak eta bideoak ikustea

Pantaila nagusian, sakatu <Menua> **Nire fitxategiak** > **Irudiak** edo **Bideoak**, eta aukeratu ikusi nahi duzun elementua.

Musika erreproduzitzea



<Menua> → Musika

Botoiak	Funtzioa
Berrespen-botoia	Musika erreproduzitzeko, gelditzeko eta berriro martxan jartzeko.
Nabigazio-botoia	<ul style="list-style-type: none">• Ezkerrera: Aurreko pistara (sakatuta); fitxategi berean atzera egiteko (luze sakatuta).• Eskuinera: Hurrengo pistara (sakatuta); fitxategi berean aurrera egiteko (luze sakatuta).• Gora/Behera: Bolumena doitzeko.
1	Uneko pistari kalifikazioa emateko.
2	Soinu-efektua aldatzeko.
3	Errepikatzeko modua aldatzeko.
4	Ausazko ordenaren modua aktibatu edo desaktibatzen du.

Interneten nabigatzea



<Menua> --> Internet



Erabiltzaileak Internetera lehen aldiz sartzen direnean, baliteke Interneteko profil bat sortu behar izatea.

Web-orrietan nabigatzea

Botoiak	Funtzioa
Nabigazio-botoia	Webgune batean gora edo behera joateko.
Berrespen-botoia	Elementu bat aukeratzeko.
<Atzera>	Aurreko orrira itzultzeko.
<Aukerak>	Nabigatzailearen aukerak irekitzeko.

Webguneetarako markatzaileak gehitzea

1. Sakatu **<Aukerak> > Laster-markak > Aukerak > <Laster-marka gehitu>**.
2. Idatzi xehetasunak, eta sakatu berrespen-botoia.

Alarma erabiltzea



<Menua> --> Alarmak

Alarmak konfiguratzea

1. Sakatu <Sortu>.
2. Idatzi xehetasunak, eta sakatu <Gorde>.

Alarmak jotzean

- Sakatu <Baieztatu> alarma geldiarazteko.
- Sakatu <Errepikatu> errepikatzen ari denean alarma isilarazteko.

Alarma desaktibatzea

Hautatu elementu bat, eta sakatu <Aukerak> --> Ezabatu.

Egutegia kudeatzea



<Menua> --> Egutegia

Gertaerak sortzea

1. Sakatu <Aukerak> > Sortu gertaera-mota bat.
2. Idatzi gertaeraren xehetasunak, eta hautatu <Gorde>.

Gertaerak ikustea

Aukeratu data bat, eta sakatu berrespen-botoia. Egutegiaren ikuspegia aldatzeko, sakatu <Aukerak> --> **Honen arabera ikusi --> Astea edo Hilabetea**

FM irratia erabiltzea



<Menua> --> FM Irr.

FM irratia aktibatzea

1. Konektatu entzungailu bat gailuan.
2. Sakatu berrespen-botoia FM irratia pizteko.
3. Sakatu <Bai> sintonizazio automatikoa hasteko.

Baliteke sintonizazio automatikoa martxan jarri behar izatea FM irratian lehen aldiz sartzen zarenean.

4. Erabili botoi hauek FM irratia kontrolatzeko:

Botoiak	Funtzioa
Berrespen-botoia	FM irratia pizteko edo itzaltzeko.
Nabigazio-botoia	<ul style="list-style-type: none">• Ezkerrera / Eskuinera: Maiztasuna sintonizatzeko; eskuragarri dagoen hurrengo katea bilatzeko (luze sakatuta)• Gora/Behera: Bolumena doitzeko.

Irrati-kateak gehitzea gogokoenen zerrendara

1. Konektatu entzungailu bat gailuan.
2. Sakatu <Aukerak> --> **Hona gehitu --> Gogokoenak.**
3. Esleitu botoi bat, eta sakatu <Hautatu>.

Bluetooth funtzioa erabiltzea



<Menua> --> Bluetooth

Encendido de la función Bluetooth

1. Sakatu <Aukerak> --> **Ezarpenak**, eta, **Bluetooth** aukeran, ezarri **Aktibatuta**.
2. Konfiguratu **Nire telefonoaren ikusgaitasuna**, beste gailu batzuek zurea bilatu ahal izan dezaten.

Bluetootha darabilten beste gailu batzuk bilatzea eta haiekin konektatzea

1. Sakatu berrespen-botoia, bluetootha darabilten beste gailu batzuk bilatzeko.
2. Aukeratu gailu bat, eta sakatu berrespen-botoia.
3. Sakatu <Bai> gailuen arteko PINa onartzeko.
4. Beste gailuak konexioa onartzen duenean, lotura eginda geratuko da.



Baliteke erabiltzaileek PINa sartu behar izatea. Gailu bakoitzaren arabera da hori.

Bluetooth funtzioa itzaltzea

Hautatu <Aukerak> --> **Ezarpenak**, eta, **Bluetooth** aukeran, ezarri **Desaktibatuta**.

Bluetooth funtzioaren bidez datuak bidaltzea

1. Aukeratu bidali nahi dituzun elementuak gailuaren aplikazioetako batetik.
2. Sakatu <Aukerak> --> **Honen bidez bidali > Bluetooth**.

Gailua pertsonalizatzea

Aplikazioak eta funtzioak kontrolatzen ditu konfigurazioak. Gailua pertsonalizatzeko, aldatu konfigurazioa. Itxura, soinu-profilak, dei-ekintzak eta beste hainbat alderdi pertsonaliza ditzakezu.



Menua → Ezarpenak

Menua	Deskribapena
Soinuen profilak	Ohar-mota, melodiak, bolumena eta abar aldatzeko.
Pantaila	Atzealdea, gaiak, distira eta abar aldatzeko.
Ordua eta data	Gailuko ordua eta eguna aldatzeko.
Telefonoa	Gailuaren hizkuntza aldatzeko, besteak beste.
Deitu	Konfiguratu deiak automatikoki ez onartzea, erantzuteko modua, deiak desbideratzea, gezurrezko deia...
Babeskopia kudeatzailea	Segurtasun-kopiak egiteko edo datuak berrezartzeko.
Segurtasuna	Blokeoak defintitzeko edo pasahitzak aldatzeko.
Ordenagailu konexioak	Ordenagailu batekiko konexioa konfiguratzeko.
Sarea	Sareko profilen konfigurazioa aldatzeko.

Menua	Deskribapena
Memoria	Memoria garbitzeko, memoria-txartela kudeatzeko edo memoriaren aurrez zehaztutako kokapena definitzeko.
Berrezarri	Gailua leheneratzeko.

Soinu-profilak doitzea



<Menua> --> Ezarpenak --> Soinuen profilak



Beste profil batera aldatzeko, hautatu bat zerrendatik.

Doinua aldatzea

1. Hautatu profil bat, eta sakatu <Editatu>.
2. Sakatu Dei abisu mota
3. Aukeratu melodia bat, eta sakatu berrespen-botoia.

Mezu-oharren tonua aldatzea

1. Hautatu profil bat, eta sakatu <Editatu>.
2. Sakatu Mezu abisu mota.
3. Aukeratu tonu bat, eta sakatu berrespen-botoia.

Melodiaren bolumena doitzea

1. Hautatu profil bat, eta sakatu <Editatu>.
2. Sakatu Bolumena > Dei abisua.
3. Doitu bolumena, eta sakatu <Gorde>.

Dei bat martxan dela ahots-bolumena doitzea

Hitz egiten ari zarela bolumena doitzeko, sakatu nabigazio-botoia gora edo behera.

Datuen segurtasun-kopia egitea

Egin ezazu datuen segurtasun-kopia (kontaktuak, mezuak, egutegia eta zereginak) memoria-txartelean. Funtzio hau erabiltzeko, memoria-txartel bat izan behar da instalatua.



<Menua> --> **Ezarpenak** --> **Babeskopia kudeatzailea**

Datuen segurtasun-kopia egitea

Sakatu **Babeskopia kudeatzailea**, aukeratu kopiatu nahi dituzun elementuak, eta sakatu <**Babeskopia**>.

Datuak leheneratzea

Sakatu **Berrezarri**, aukeratu leheneratu nahi dituzun elementuak, eta sakatu <**Berrezarri**>.

Mugikor-bilatzailea erabiltzea

Mugikor-bilatzailearen funtzioarekin, gailua aurkitu eta berreskuratu egin dezakezu, lapurtzen badizute edo galtzen baduzu. Norbaitek zurea ez den SIM txartel bat sartzen badu, segimendu-mezu bat bidaliko zaie aurrez ezarritako hartzaileei. Baliteke zure zerbitzu-hornitzaileak zenbait funtzio onartzearen gain egotea funtzio horren eskuragarritasuna.



<Menua> > Ezarpenak --> Segurtasuna --> Arakatzailer mugikorra



Baliteke erabiltzaileek pasahitza berretsi behar izatea mugikor-bilatzaile sartzeko.

Mugikor-bilatzailea aktibatzea

1. Idatzi pasahitza, eta sakatu **<Ados>**.
2. Sakatu **Aldatu, Aktibatuta** hautatzeko.
3. Idatzi hartzaileen eta bidaltzailearen datuak.
4. Pulse **<Gorde> --> <Ados>**.

Mugikor-bilatzailea desaktibatzea

1. Idatzi pasahitza, eta sakatu **<Ados>**.
2. Sakatu **Aldatu, Desaktibatuta** hautatzeko.
3. Sakatu **<Gorde>**.

Gezurrezko deiak egitea



<Menua> --> Ezarpenak --> Deitu --> Dei faltsua

Gezurrezko deien funtzioa aktibatzea

1. Konfiguratu Dei faltsuaren laster tekla aukera Aktibatuta gisa.
2. Aldatu sarrerako deiaren izena edo zenbakia (beharrezkoa bada).

Gezurrezko deiak egitea

Pantaila nagusian, luze sakatu nabigazio-botoia beheerantz.

Segurtasunari buruzko informazioa



www.sar-tick.com

Produktu honek betetzen ditu estatuko SAR mugak (2,0 W/kg). Gehienezko SAR balioak eskuliburu honetako absortzio espezifikokoaren tasaren ziurtapenari buruzko informazio-atalean daude (SAR, Specific Absorption Rate). Produktua leku batetik bestera eramatean edo gorputzetik gertu erabiltzean, utzi gutxienez 1,5cm-ko tartea gorputzetik, irrati-maiztasuneko esposizioaren baldintzak betetzeko.

Marka komertzialak

- SAMSUNG eta SAMSUNGen logotipoa Samsung Electronicsen marka erregistratuak dira.
- Bluetooth SIC Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- Gainerako marka komertzialak eta egile-eskubideak beren jabeenak dira.

Atal honek gailu mugikorretarako segurtasun-informazioa du. Baliteke edukietako batzuk ez aplikatzea zure gailuari. Zuk zeuk minik ez hartze-ko, beste batzuei ez eragiteko eta gailua ez kaltetzeko, irakurri gailuaren segurtasunari buruzko informazioa erabili aurretik.



Oharra

Ohar eta segurtasun-jakinarazpen hauek bete ezean, baliteke erabiltzaileak zauri larriak izatea edo hiltzea.

Ez erabili elikatze-kable edo konektore hondaturik, ez eta entxufe solterik ere.

Baliteke konexio ez-seguruen ondorioz elektrizitate-deskargak edo suteak izatea.

Ez ukitu elikatze-kableak esku bustiekin, eta ez egin tira kabletik kargagailua deskonektatzeko.

Elektrokutatu egin zintezke.

Ez tolestu eta ez hondatu elikatze-kablea.

Hori eginez gero, deskarga elektriko bat izan liteke ,edo telefonoa hondatu egin liteke.

Ez erabili gailua kargatzen ari den bitartean, eta ez ukitu esku bustiekin.

Hori eginez gero, deskarga elektriko bat izan liteke.

Ez eragin zirkuitulaburrik kargagailuan, ez eta gailuan ere.

Baliteke elektrizitate-deskarga bat edo sute bat eragitea edota bateriak ondo ez funtzionatzea edo lehertzea.

Ez erabili gailua aire librean tximista-ekaitza dagoenean.

Baliteke elektrizitate-deskarga bat izatea edo gailuak ondo ez funtzionatzea.

Fabrikatzaileak onartutako bateriak, kargagailuak, osagarriak eta hornigaiak erabili.

- Bateria edo kargagailu generikoak erabiltzearen ondorioz, gailuaren bizitza erabilgarria laburtu egin liteke, edo funtzionamendu okerra eragin liteke. Baliteke sute bat eragitea edo bateria lehertzea ere.
- Samsungek onartutako eta gailuarentzat bereziki diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek lesio fisiko larriak eragin diezazkizukete zuri edo kalteak eragin diezazkiokete gailuari.
- Samsung ez da erabiltzailearen segurtasunaren arduradun markak onartutakoak ez diren osagarriak edo hornidurak erabiliz gero.

Ez kolpatu kargagailua eta gailua, eta ez utzi erortzen.

Kontuz erabili eta bota gailua eta kargagailua

- Inoiz ez bota bateria edo gailua sutara. Ez jarri inoiz bateria edo gailua beroa ematen duten tresnen gainean (adibidez, labeak, mikrouhin-labeak, berogailuak edo erradiadoreak). Gehiegi berotuz gero, gerta liteke gailua lehertzea. Erabilitako bateriak edo gailuak botatzean, bete tokiko arau guztiak.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu gailua.
- Saiatu ez jartzen gailua goi-presioko tokietan; izan ere, barneko zirkuitulabur bat gerta liteke, eta gehiegi berotu liteke.

Babestu gailua, bateria eta kargagailua, kaltetu ez daitezten

- Saia zaituz gailua eta bateria ez jartzen tenperatura oso altuetan edo oso baxuetan.
- Muturreko tenperaturek kalte egin diezaiokete gailuari, eta kargatzeko gaitasuna eta gailuaren eta bateriaren bizitza erabilgarria murriztu ditzakete.
- Saia zaituz bateria ez jartzen objektu metalikoak ukitzeko moduan; izan ere, bateriaren terminal positiboan eta negatiboan artean konexioa sor dezake horrek, eta bateria aldi baterako edo behin betiko hondatu.
- Ez erabili inoiz hondatutako kargagailurik, ez eta bateriarik ere.

Ez gorde gailua berogailuetan, mikrouhin-labeetan, sukaldeko ekipa beroetan eta goi-presioko edukiontzietan, ezta haietatik gertu ere.

- Bateriak ihesak izan litzake.
- Bateria gehiegi berotu liteke, eta sute bat eragin.

Ez erabili edo gorde gailua hauts handia edo aireak ekarritako materialen kontzentrazio handia egonez gero.

Hautsak edo material arrotzek gailuak gaizki funtzionatzea eragin lezakete, eta, horren ondorioz, sutea nahiz deskarga elektriko bat gerta litezke.

Ez kosk egin edo miazkatu gailua edo bateria.

- Gailua hondatu egin daiteke, edo leherketa edo sute bat eragin.
- Umeak edo animaliak ito egin litezke pieza txikiekin.
- Gailua umeek erabiltzen dutenean, ziurtatu behar bezala erabiltzen dutela.

Ez sartu gailua eta harekin datozen osagaiak begietan, belarrietan eta ahoan

Bestela, ito egin zintezke, edo lesio larriak izan.

Ez manipulatu hondatuta dauden edo ihesak dituzten litio-ioizko bateriak.

Litio-ioizko bateriak modu seguruan botatzeko, jarri harremanetan gertuen duzun baimendutako zerbitzu-zentroarekin.



Kontuz

Ohar eta segurtasun-jakinarezpen hauek bete ezean, baliteke erabiltzaileak zauri larriak izatea edo kalte materialak eragitea.

Ez erabili gailua beste gailu elektronikoetatik gertu.

- Gailu elektroniko gehienek irrati-maiztasuneko seinaleak erabiltzen dituzte. Gailuak interferentziak sor ditzake beste gailu elektroniko batzuekin.
- LTE datu-konexio bat erabiltzen baduzu, baliteke beste gailu batzuekiko interferentzia sortzea, hala nola audio-ekipo eta telefonoekin.

Ez erabili gailua erietxeetan, hegazkinetan edo irrati-maiztasunaren eraginak jasan ditzaketen autoetan.

- Ahal dela, erabili gailua taupada-markagailuetatik 15 cm-ra gutxienez, gailuak interferentziak eragin baititzake.
- Taupada-markagailuarekiko interferentziak ahalik eta gehiena gutxitzeko, erabili gailua taupada-markagailua ez duzun gorputzeko aldean.
- Ekipo medikoren bat erabiltzen baduzu, jakinarazi ekipoaren fabrikatzaileari gailua erabili aurretik, jakiteko gailuak igorritako irrati-maiztasunak eraginik izan dezakeen ekipoan.
- Hegazkin batean gailu elektronikoak erabiliz gero, baliteke nabigazioko tresna elektronikoekin interferentziak eragitea. Ziurtatu gailua itzalita dagoela aireratzeko eta lur hartzeko prozeduretan. Aireratu ondoren, gailua hegazkin-moduan erabili ahal izango duzu, betiere hegazkineko langileek uzten badizute.

- Baliteke zure ibilgailuaren ekipamendu elektronikoeak behar bezala ez funtzionatzea gailuaren irrati-maiztasuna dela eta. Jar zaituz fabrikatzailearekin harremanetan informazio gehiago eskuratzeko.

Ez erabili gailua kea edo emanazio astunak dauden lekuetan

Bestela, gailuaren kanpoko alde kaltetzea edo ondo ez funtzionatzea.

Audifono bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan fabrikatzailearekin irrati-maiztasunari buruzko informazioa eskuratzeko.

Gailuak igortzen duen irrati-maiztasunak interferentziak eragin ditzake audifono batzuekin. Gailua erabili aurretik, jarri harremanetan fabrikatzailearekin, jakiteko gailuak igorritako irrati-frekuentziak audifonoari eragingo dion edo ez.

Ez erabili gailua irrati-maiztasuna igortzen duten beste gailu batzuetatik hurbil (soinu-sistemak edo irrati-transmisioko dorreak, adibidez)

Baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea irrati-maiztasuna dela eta.

Itzali gailua lehergaiak egon daitezkeen inguruetan

- Lehergaiak egon litezkeen inguruetan, itzali gailua bateria kendu beharrean.
- Bete beti lehergaiak egon daitezkeen inguruetako arauak, jarraibideak eta ohar-seinaleak.
- Ez erabili gailua erregaia hartzeko lekuetan (zerbitzuguneak), erregai edo gai kimikoen ondoan edota eraispen-eremuetan.
- Ez biltegitatu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitezkeen materialik gailua eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

Gailuak usain edo soinu arraroren bat egiten badu edota gailutik edo bateriatik kea edo likidoren bat ateratzen bada, utzi berehala gailua erabiltzeari, eta eraman Samsungen zerbitzu-zentro batera.

Bestela, baliteke suteren bat edo leherketaren bat izatea.

Bete itzazu ibilgailu bat gidatzean gailu mugikorrak erabiltzeari buruzko aholku eta arau guztiak.

Gidatzen duzun bitartean, ibilgailua modu seguruan eramatea da zure ardura nagusia. Legez galarazita badago, ez erabili gailu mugikorra gidatu bitartean. Zure eta gainerakoien segurtasunerako, jokatu zentzuz, eta gogoratu aholku hauek:

- Ezagutu gailua eta haren funtzio praktikoak, markaketa bizkorra eta berriro deitzeko funtzioa esate baterako. Funtzio horiei esker, laburtu egiten da gailu mugikorrarekin deiak egiteko edo jasotzeko denbora.
- Jarri gailua erraz har dezakezun toki batean. Ziurta ezazu errepidea bistatik galdu gabe erabil dezakezula haririk gabeko gailua. Egokia ez den une batean dei bat jasotzen baduzu, utzi zure ahots-postontziari erantzuten.
- Eten deiak zirkulazio handia edo eguraldi txarra dagoenean. Euria, elurbustia, elurra, izotza edo zirkulazio handia arriskutsuak izan daitezke.
- Ez idatzi edo bilatu telefono-zenbakirik. Zeregin bat idazteak edo agendan begiratzeak arreta galaraz diezazuke zure ardura nagusian: ziurtasunez gidatzean.
- Zuhurtziaz markatu, eta aztertu zirkulazioa. Mugitzen ari ez zarenean edo abiatu aurretik egin deiak. Saiatu autoa geldirik dagoela programatzen deiak.
- Ez izan arreta galaraz diezazukeen eta estresa edo emozioa eragin diezazukeen elkarrizketarik. Esan deitzaileari gidatzen ari zarela, eta eten errepideko arreta galarazten dizuten deiak.

Gailu mugikorraren erabilera eta mantentze-lan egokiak

Ez busti telefonoa

- Hezetasunak eta likidoek gailuko piezak edo zirkuitu elektronikoak honda ditzakete.
- Ez piztu gailua bustita badago. Dagoeneko piztuta badago, itzali, eta kendu bateria berehala (ezin baduzu itzali eta ezin badiozu bateria kendu, utzi dagoen moduan). Gero, lehortu gailua toalla batekin, eta eraman zerbitzu-zentrora.
- Urak gailuaren barruan eragindako kalteak adierazten dituen etiketa-ren kolorea aldatzen dute likidoek. Urak gailuan kalteak eraginez gero, baliorik gabe gera daiteke fabrikatzailearen bermea.

Gailua toki lauetan utzi

Erortzen bada, hondatu egin liteke.

Ez gorde gailua toki bero edo hotzetan. Gailua 5 °C eta 35 °C arteko tenperaturetan erabiltzea gomendatzen da

- Ez gorde gailua leku oso beroetan (adibidez, udan, auto barruan). Bestela, baliteke pantailak ondo ez funtzionatzea, gailua kaltetzea edo bateria lehertzea.
- Ez utzi gailua denbora luzez eguzkiaren argiak zuzenean jotzen duela (adibidez, autoaren aginte-mahaiaren gainean).
- Gorde bateria 0 °C eta 45 °C bitartean.

Ez gorde gailua metalezko objektuekin (txanponak, giltzak eta lepokoak, adibidez)

- Gerta liteke gailua urratzea edo gaizki funtzionatzea.
- Bateriaren terminalek metalezko objektuak ukitzen badituzte, sutea sor liteke.

Ez gorde gailua eremu magnetikoetatik gertu.

- Gerta liteke gailua gaizki funtzionatzen hastea eta bateria deskargatzea eremu magnetikoen ondorioz.
- Banda magnetikoak dituzten txartelak (kreditu-txartelak, telefono-txartelak, aurrezki-libretak eta ontziratze-txartelak) hondatu egin daitezke eremu magnetikoen ondorioz.

Gailua berotzen bada, utzi gailua edo aplikazioak erabili gabe denbora batez.

Azala denbora luzez gailu bero batekin kontaktuan egonez gero, tenperatura baxuko erredura-sintomak izan ditzake, hala nola orban gorriak eta pigmentazioa.

Ez erabili gailua atzeko estalkia jarrita ez badago

Baliteke bateria gailutik irtetea, eta, horren ondorioz, kalteren bat izatea edo gaizki funtzionatzea.

Zure gailuak kamerarentzako lanpara bat edo flash bat badu, ez itzazu erabili pertsonen eta animalien begietatik gertu.

Ikusmena gal liteke aldi batez, edo begiak kaltetu litezke.

Kontuz ibili argi keinukariekin.

- Gailua erabiltzen duzunean, utzi gelako argiren bat piztuta, eta ez jarri pantaila begietatik gertuegi.
- Konbultsioak eta zorabioak gerta daitezke argi keinukarien eraginez, denbora luzez argi keinukariak dituzten bideoak edo jolasak erabiltzean. Ondoeza sentitzen baduzu, utzi berehala gailua erabiltzeari.
- Zure inguruko norbaitek konbultsioak edo zorabioak izan baditu antzeko gailu bat erabiltzean, galdetu mediku bati gailua erabili aurretik.
- Ondoezen bat baduzu (karranpa muskularrak, desorientazioa...), utzi berehala gailua erabiltzeari, eta galdetu mediku bati.
- Ikusmena ez nekatzeko, utzi tartean behin gailua erabiltzeari.

Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Ekintza bera behin eta berriro egiten duzunean (esaterako, teklak sakatzea, karaktereak marraztea hatzekin ukipen-pantailan edo jolastea), baliteke mina sentitzea eskuan, lepoan, sorbaldan edo gorputzeko beste zati batean. Gailua denbora luzez erabiltzen duzunean, eutsi ezazu eskua erlaxatua duzula, kontuz sakatu teklak, eta egin etenak sarri. Ekintza horiek egiten ari zarela edo egin ondoren ere mina sentitzen baduzu, utzi gailua erabiltzeari, eta galdetu medikuari.

Entzungailuak erabiltzen dituzunean, babestu entzumena eta belarriak.



- Soinuen gehiegizko mailak entzumenari kalte egin diezaioke.
- Oinez zoazela soinua altuegi izanez gero, arreta galaraz diezazuke, eta istripu bat eragin.
- Jaitsi bolumena entzungailuak audio-iturri batera konektatu aurretik, eta erabili bolumena ahalik eta baxuen musika edo elkarrizketa entzuteko.
- Inguru lehorretan, baliteke elektrizitate estatikoa pila-tzea entzungailuetan. Saiatu entzungailuak ez erabiltzen inguru lehorretan, edo ukitu metalezko objekturen bat entzungailuak gailura konektatu aurretik, elektrizitate estatikoa deskargatzeko.
- Ez erabili entzungailua gidatzen ari bazara edo zaldi gainean bazabiltza. Bestela, baliteke arreta galtzea eta istripu bat eragitea edo legea urratzea, bizi zaren herrialdearen arabera.

Ibiltzen edo mugitzen ari zarenean, arretaz erabili gailua.

- Arretaz begiratu inguruetara, zeure buruari eta ingurukoei lesio fisikoak ez eragiteko.
- Ziurtatu entzungailuen kablea ez zaizula korapilatu besoetan edo inguruko objektuetan.

Ez eraman gailua kanpoko poltsikoetan edo gerriaren inguruan.

Eroriz gero, min har dezakezu, edo gailua hondatu egin daiteke.

Ez margotu gailua, eta ez jarri eranskailurik

- Pinturak eta eranskailuek zati mugikorrei traba egin diezaiekete, eta baliteke gailuak behar bezala ez funtzionatzea.
- Pinturari edo produktuaren alde metalikoei alergia badiezu, baliteke azkura, ekzemak edo hanturak izatea azalean. Hori gertatzen bada, ez erabili gehiago gailua, eta galdetu medikuari.

Ez erabili gailua pantaila pitzatuta edo hautsita badago.

Hautsitako beirak zauriak eragin ditzake eskuetan eta aurpegian. Eraman gailua Samsungen zerbitzu-zentro batera, konpontzeko.

Kontuz instalatu gailu mugikorrak eta gainerako tresnak

- Ziurtatu gailu mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu seguruan muntatuta daudela.
- Ez jarri gailua eta osagarriak airbagetik gertu edo airbaga zabaltzen den tokian. Ongi instalatuta ez dauden hariarik gabeko ekipoei lesio larriak eragin ditzakete airbagak bizkor putzen direnean.

Ez utzi gailuari erortzen, eta ez eman kolpe handirik.

- Gerta liteke gailua urratzea edo gaizki funtzionatzea.
- Tolesten edo itxuraldatzen baduzu, litekeena da gailua hondatzea eta piezek ondo ez funtzionatzea.


Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu gailua astebete baino denbora gehiagoz, gehiegizko kargak haren bizitza erabilgarria moztu baitezake.
- Denborarekin, gailua deskargatu egiten da erabiltzen ez bada, eta, erabiltzeko, berriro kargatu behar da.
- Erabili behar ez denean, deskonektatu kargagailua energia-iturrietatik.
- Diseinatu zen helburuetarako soilik erabili bateria.

- Denbora luzez batera erabiltzen ez baduzu, baliteke haren bizitza erabilgarria eta errendimendua txikitzea. Gerta liteke bateriak ondo ez funtzionatzea edota lehertzea ere, bai eta sute bat eragitea ere.
- Bete eskuliburu honetako jarraibide guztiak, gailuak eta bateriak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten. Ohar eta jarraibide hauek ez betetzeagatik sortutako kalteek edo funtzionamendu-akatsak fabrikatzailearen bermea bertan behera utz dezakete.
- Denborarekin, baliteke gailua gastatzea. Pieza eta konponketa batzuk bermean sartzen dira, baina kalteak edo baimendu gabeko osagarriak erabiltzeagatik hondatzea ez ditu bamean hartzen.

Kontuan hartu informazio hau gailua erabiltzean

- Eduki ezazu bertikalean, betiko telefonoarekin egingo zenukeen bezala.
- Mikrofonotik hurbil hitz egin.



Ez desmuntatu, aldatu edo konpondu gailua.

- Gailuan aldaketaren bat eginez gero, fabrikatzailearen bermea bertan behera gera liteke. Gailua konpondu behar baduzu, eraman ezazu Samsungen zerbitzu-zentro batera.
- Ez desmuntatu edo zulatu bateria, horrek leherketa edo sute bat eragin baitezake.
- Itzali gailua bateria kendu aurretik. Gailua piztuta dagoen bitartean bateria kentzen badiozu, baliteke funtzionamendu-akatsak izatea.

Kontuan hartu informazio hau gailua garbitzean

- Erabili eskuoihal bat edo trapu bat gailua edo kargagailua garbitzeko.
- Garbitu bateriaren terminalak kotoiaz edo eskuoihal batez.
- Ez erabili gai kimikorik, ez eta garbigarrikerik ere. Bestela, baliteke gailuaren kanpoko aldeko kolorea galtzea edo korrosioa eragitea, bai eta elektrizitate-deskarga edo sute bat eragitea ere.

Ez erabili diseinatuta dagoen helbururako ez bada.

Baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea.

Gailua jendaurrean erabiltzen duzunean, saiatu inguruakoak ez moles-tatzen.

Langile adituei soilik utzi gailuaren mantentze-lanak egiten

Baliteke kalteak eragitea eta fabrikatzailearen bermea bertan behera geratzea, baldin eta adituak ez diren langileei gailuaren mantentze-lanak egiten uzten badiezu.

Kontuz ibili SIM txartelak, memoria-txartelak edo kableak manipulatzeko

- Gailuan txartel bat sartzerako edo kable bat konektatzerako, ziurtatu txartela alde egokira begira sartuta dagoela edo alde egokitik konektatuta dagoela.
- Ez atera txartela gailua informazioa transferitzen ari den bitartean edo txartelera sarbidea duzunean; izan ere, datuak gal ditzakezu, eta txartela edo gailua hondatu.
- Babestu txartelak deskarga bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Ez ukitu urre-koloreko kontaktuak edo terminalak hatzekin edo meta-lezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.
- Txartel bat edo kable bat indarrez edo oker sartzen baduzu, baliteke funtzio ugariko hargunean edo gailuaren beste zati batzuetan kalteak eragitea.

Ziurtatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea duzula

Baliteke eremu edo egoera batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

Babestu zure datu pertsonalak, saiatu ez zabaltzen eta informazio konfidentziala gaizki ez erabiltzen

- Gailua erabiltzean, ziurtatu datu garrantzitsuen segurtasun-kopiak egiten dituzula. Samsungek ez du bere gain hartzen datuak galtzearen ardura.
- Gailua botatzen duzunean, egin datu guztien segurtasun-kopia bat, eta, gero, berrezarri gailua zure informazio pertsonala ez dadin modu desegokian erabili.
- Aplikazioak deskargatzean, arretaz irakurri baimenen pantaila. Kontu berezia izan funtzio baterako baino gehiagorako sarbidea duten aplikazioekin eta informazio pertsonaleko sarbidea dutenekin.

- Kontrolatu zure kontuak tartean behin, erabilera susmagarriak edo baimendu gabeak saihesteko. Zure informazio pertsonala gaizki erabili izanaren zeinurik ikusten baduzu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin, zure kontuko informazioa ezabatzeko edo aldatzeko.
- Gailua galtzen baduzu edo lapurtzen badizute, aldatu zure kontuen gako-hitzak, zure informazio pertsonala babesteko.
- Saihestu iturri ezezaguneko aplikazioak erabiltzea, eta blokeatu gailua, patroil bat, gako-hitz bat edo PIN bat erabiliz.

Ez zabaldu egile-eskubideekin babestutako materialik.

Ez zabaldu egile-eskubideen legeekin babestutako materialik edukiaren jabeen baimenik izan gabe. Hori eginez gero, baliteke egile-eskubideen legeak urratzea. Fabrikatzaileak ez du bere gain hartzen erabiltzaileak materialaren legez kanpoko erabilera egitea.

Malwarea eta birusa

Jarraitu iradokizun hauei, malware eta birusetatik babesteko gailua. Bestela, baliteke kalteren bat eragitea edo datuak galtzea, eta litekeena da bermeak ez estaltzea

- Ez deskargatu aplikazio ezezagunik.
- Ez sartu fidagarriak ez diren webguneeetan.
- Ezabatu bidaltzaile ezezagunen testu-mezuak edo mezu elektronikoak.
- Ezarri pasahitza, eta aldatu sarri-sarri.
- Desaktibatu haririk gabeko funtzioak (bluetootha, adibidez) erabili behar ez dituzunean.
- Gailuak gauza arraroak egiten baditu, erabili antibirusa infekziorik baduen ikusteko.
- Jarri martxan antibirusa gailuan deskargatutako aplikazioak eta fitxategiak ireki aurretik.
- Instalatu antibirusa ordenagailuan, eta sarri exekutatu, infekzioak detektatzeko.
- Ez editatu erregistro-doikuntzak, eta ez aldatu gailuaren sistema eragilea.

Absortzio espezifikoa tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR, Specific Absorption Rate)

GAILU HONEK IRRATI-UHINEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU.

Zure gailu mugikorra irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Nazioarteko arauak gomendatutako irrati-uhinekiko (irrati-maiztasuneko eremu elektromagnetikoak) esposizio-mugak ez gainditzeko moduan diseinatu da. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu, eta pertsona ororen (adina eta osasun-egoera gorabehera) segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte.

Irrati-uhinekiko esposizioaren arauen neurketa-unitatea absortzio espezifikoa koefizientea edo SAR da. Gailu mugikorretarako SAREN muga 2,0 W/kg-koa da. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz energia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. ICNIRP erakundearen arauen arabera, hauek dira gailu honetarako SAR balio altuenak:

Modelo honetarako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehieneko SAR balioa	
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	0,331 W/kg
Gorputzetik hurbil erabiltzeko SAR balioa	0,332 W/kg

Gailua erabiltzean, haren benetako SAR balioak adierazitako balio horiek baino askoz txikiagoak dira. Izan ere, sistemaren eraginkortasuna bermatzeko eta sarearekiko interferentziak murrizteko, zure mugikorraren eragiketa-gaitasuna automatikoki txikiagotzen da deia egiteko gehieneko potentzia behar ez duenean. Gailuaren energia-irteera hori zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta SAR balio txikiagoa izango du.

SAR proba bat egin da gailua gorputzetik 1,5 cm-ra jarrita. Irrati-maiztasuneko esposizioaren baldintzak betetzeko, gailua gorputzaren kontra erabiltzen duzunean gutxienez 1,5cm-ko tartea utzi behar duzu. Zenbait erakunde (Osasunaren Mundu Erakundeak eta AEBko Elikagaiak eta Sendagaiak Administrazio Erakundeak, besteak beste), jakinarazi dute esposizioa murriztu nahi duten pertsonak esku libreko osagarri bat erabili behar luketela gailua burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko, edo, bestela, gailua denbora gutxiagoz erabili beharko luketela.

Informazio gehiago eskuratzeko, sartu www.samsung.com/sar webgunean, eta bilatu zure gailua, modelo-zenbakia jarrita.

Produktu hau behar bezala botatzea

(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)



(Zaborra bereizita jasotzen duten herrialdeetan aplikatzen da).

Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktua eta haren osagarri elektronikoak (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin.

Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da. Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezaketen jakiteko.

Enpresa erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



(Zaborra bereizita jasotzen duten herrialdeetan aplikatzen da).

Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera.

Hg, Cd edo Pb ikur kimikoak agertzen badira, horrek esan nahi du bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatzen jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete.

Baliabide naturalak babesteko eta birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

Adostasun-deklarazioa**Produktuari buruzko xehetasunak**

Produktu honentzat:

Produktua: GSM BT telefono mugikorra Modeloa(k): GT-C3590

CE 0168

Adierazpena eta aplikazio daitezkeen estandarrak:

Honen bidez adierazten dugu arestian aipatutako produktuak RTE-en Direktiban (1999/5/EC) deskribatzen diren oinarritzko eskakizun guztiak betetzen dituela, hauek aplikatuz:

Segurtasuna EN 60950-1: 2006 + A12 : 2011

SAR EN 50360 : 2001 / A1 : 2012

EMC Radio

EN 62479 : 2010

EN 62311 : 2008

EN 62209-1 : 2006

EN 62209-2 : 2010

EN 301 489-01 V1.9.2 (09-2011)

EN 301 489-07 V1.3.1 (11-2005)

EN 301 489-17 V2.2.1 (09-2012)

EN 301 511 V9.0.2 (03-2003)

EN 300 328 V1.7.1 (10-2006)

eta 2011/65/EB Direktiba, gailu elektriko eta elektronikoetan zenbait substantzia arriskutsu erabiltzeko murrizketei buruzkoa. 1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan ([IV] eranskinean zehaztuta) aipatutako adostasun-ebaluazioaren prozeduran, jakinarazitako erakunde hauek hartu dute parte:

TÜV SÜD BABT, Octagon House, Concorde Way, Fareham,
Hampshire, PO15 5RL, Erresuma Batua*

Identifikazio-marka: 0168

EBn duen ordezkaria

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony
Way, Yateley, Hampshire, GU46 6GG,
UK 2013.06.11

(Igorpen-lekua eta data)

Joong-Hoon Choi / Lab.
Kudeatzailea

(Pertsona baimendunaren izena eta
sinadura)

* Helbide hori ez da Samsungen Zerbitzu Teknikoaren Zentroarena. Samsungen Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-txartelean edo galdetu produktua erosi zenuen dendan.